

E.E.- 2026-00323

ALKATETZA DEKRETUA

OINARRIA: 2026ko garagarrilaren 1ean eta sarrera erregistro nagusiko E202602513 zenbakiagaz, Olarreta Pilota Elkarteak Larrabetzuko Udaleko 2026ko Aurrekontu Orokorrean modu nominatiboan zehaztutako diru-laguntzaren eskaria egin zuen. Diru-laguntzaren zenbatekoa 11.000,00 eurokoa da.

OINARRIA: 2026ko urtarrilaren 27an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2026 ekitaldi ekonomikorako Udal aurrekontuaren behin betiko onarpena argitaratu zen eta horretan Olarreta Pilota Elkarteari diru-laguntza nominatiboa agertzen da 341.48101 aurrekontu partidaren. Partida horretan 11.000,00 euroko kreditua dago.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22 eta 28. artikuluetan, Lege hori garatzen duen araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, honako hau EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Olarreta Pilota Elkarteari 341.48101 aurrekontu partidaren pentsuan 11.000,00 euroko diru-laguntza ematea, ebazpen honetan zehaztutakoari jarraituz:

- Diru-laguntzaren objektua: Larrabetzuko herriari kirolariak ekartzen jarraitzea, harrobia haur txikietan landuz, gizartean modu osasuntsuan eta errespetuzkoan hezte, gozamina eta ikaskuntza garaipenaren nahien aurretik jarritz.
- Aurrekontu kreditua: 11.000,00 euro, udal aurrekontuko 341.48101 aurrekontu partidaren pentsuetan.
- Xede berdinarekin lortzen diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edota baliabideekin bateragarria izango da, horiek bestelako Administrazio Publikoetatik datozela edo beste erakunde publiko edo pribatutik datozela kontuan izan gabe. Justifikazioarekin batera bestelako diru-sarrerak lortu izanaren inguruko akreditazioa egin beharko da.
- Diru-laguntza ebazpen hau ematearekin %70a ordainduko da eta geratzen den %30a justifikazioa egin eta gero ordainduko da.
- Diru-laguntza justifikatzeko epea 2027ko zezeilaren 26an bukatu egiten da. Justifikazioa lege aplikagarriak zehaztutako moduan egingo da.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri udal diru-zaintzari eman diru-laguntzaren ordainketa egin dezan.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau interesdunari jakinarazoko jako.

LAUGARRENA.- Udalbatzako Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran Dekretu honen barri emongo da.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Horren aurka, aukerako izaeraz, berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen Alkatearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Hori guztia, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteko duen eskubideari kalterik egin gabe.